

Antibiotikoen erabilera murrizteak eragina du animalien erresistentzietan

Animalietan antimikrobiarrak modu arrazionalen erabiltzeri buruzko Herbehereetako txosten baten arabera, **korrelazio zuzena dago animaliei emandako antibiotikoen murrizketaren (% 58,4ko beherakada salmentan 2009tik 2015era) eta antimikrobiarren aurreko erresistentzia (http://wikia.elika.eus/index.php?title=Mikrobioen_aurkako_erresistentzia)-mailaren beherakadaren artean**, loditzeko oilaskoetan, behietan eta txerrietan.

Lorpen hori erdiesteko, honako jardunbide egoki hauek identifikatu dira:

1. Ustiategietan erabiltzen diren antibiotikoen eta haien ebaluazio konparatiboaren erregistro gardena
2. Albaitarien preskripzio-patroien ebaluazio konparatiboa
3. Albaitariei garrantzi handiagoa ematea
4. Animalien osasuna hobetzeko ekintzak sustatzea
5. Antibiotikoen erabilera arrazionala sustatzea, ezarritako helburu ofizialekin bat
6. Kolektibo publiko zein pribatuen parte-hartzea sustatzea; arduradunek neurri eraginkorrak hartu beharko dituzte helburuak erdiesteko, eta herrialdeko agintariek neurri horiek berrikusi eta babestuko dituzte

*Txostenaren ondorioek adierazten dute emaitzak epe nahiko laburrean lor daitezkeela, animalien osasunari eta ongizateari kalterik eragin gabe, ekoizleen bideragarritasun ekonomikoa babestuta eta **gehiegizko erregulazioa mugatuta**.*

Identifikatutako neurri batzuk egokiak izan litezke beste estatu-kide batzuetan ezartzeko.

Final report of a fact-finding mission carried out in the Netherlands from 13 september 2016 to 20 september 2016 in order to gather information on the prudent use of antimicrobials in animals (http://ec.europa.eu/food/audits-analysis/act_getPDF.cfm?PDF_ID=12902)
ELIKA . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 . berri@elika.eus
(<mailto:berri@elika.eus>)